



# XENPELAR BERTSO ESKOLA SENDO, BERTSOLARITZAREN BIDETIK

## XENPELAR BERTSO ESKOLA

Hasitzerako agurtu nahi zaitugu euskal irakurle leiala, zu bait zara euskararen sustatzaile eta egiazko euskaldun. Zertarako bada bestela hidazlan hau agertu "OARSO" honetan. Ondotxo daki bertsozaleak, bertsolaritzaren ardatz eta euskarri euskara dela. Hemen ez dago zalantzarik eta hikamikarik. Beraz, guk ezin genezake hitz hau baino goraipatu: Euskaraz eta Kitto!

Ilhaz hasi genuen "OARSO" honetan bertso eskolaren berri ematea. Aurten ere konbidoa luzatu zaigu, orrialde hauetan azal ditzagun 91-92 ikastaroan egindakoak. Hau da hain zuzen ere nahi duguna, ahalik era eta modu zehatz laburrenean eman. Izan ere, ez da erraza laburbiltzea egindako guztiak, batez ere, gure langintzak zerikusirik ez daukanean idazlanekin. Bada ez bada

ere Iturrinok egindako "Markesaren alaba" bertso sortako bertso baten hasiera gogoratuz, "Zeruak eta lurak egin zituana, memoriya argitzera zatoz neregana, hitza emana daukat bete nahi nua-na, kunplitzeko dedala desio dedana". Hala biz.

## 91-92 IKASTAROA

Ikastaro honekin iadanik bostgarrena bete dugu bertso eskola honetan. Ikastaro hau zortzi hilabetez luzatzen da. Asteaz behin, ostiral egunean, bi ordutakoa, hasi arratsaldeko zazpitan bederatziak arte. Batazbeste hogeibat lagunek eskuhartu dute ikastaroan. Adina, hamalau urte gazteenak eta helduenak berriz hirurogeibat. Sexuari dagokionez, ia ia parekatuak gaude emakumezkoak eta



## ESKOLAKO IKASLEAK

**Zutik:** Bixente Alberdi - Arantza Irigorri - José Luis Zabala - Irene Florentino - Joxe Salaberria - Nere Mugica - Ibon Zabala - Karlos Aizpurua - Asier Urbieta - Imanol Miner - Iñaki Alberdi - José Luis Maritxalar.

**Eserita:** Jugatx Garate - Ainhitze Larrañaga - Saioa Arribas - Gorka Rodríguez - Egoitz Urbe - Alazne Etxeberria - Aitziber Alberdi - Beñat Irastorza - Oier Santxez.

gizonezkoak. Orain arte talde bakarra osatzen dugu nahiz datoren ikastarorako (92-93) bi talde osatuko diren. Ikastaro praktikoa da batez ere, eta beronen helburua da (ikasteaz gain noski), umore ederrean bi ordu horiek betetzea, kopeta beltz oro uxatuz eta baita ahal den neurrian bertsolaritza ikastaroa goza-bidetzat hartu eta landu.

Hiru zatitan banatzen dira bi orduak: lehen zatian bertso sorta kantatu denon artean, bigarren zatian bertso idatziak egin eta hirugarren zatia berriz bapatekoan egiten dugu. Zer esanik ez, azken hau dela guretzat zailena, ez bait dago hemen izkutatzerik hanka luze eta motza, baina tira! Txapeldunek ere ez omen zuten ikasi pottorik egin gabe. Gu horrek kontsolatzen gaitu, arian arian txapela jantzi genezakela... dendan erosiz gero.

Egoitza berriz, Xenpelar etxean dugu, ongi gaude hemen. Leku bikaina benetan eta aurrerantzean bertan jarraitzea da gure asmoa. Inork bestelakorik esaten ez digun bitartean, Aurrezki Kutxaren onespina dugu bai eta Euskal Herriko Bertsolarien Elkarteko onespina ere, elkarre horren ardurapean bait dago egoitza. Hemen Euskal Herriko bertsolaritzaren artxibo nagusia kokatuko da. Hau ez da txantxetako gero!, gure herrian eta Xenpelar etxeari tamainako ohore ematea.

Uhaz, 91garrenean, abenduaren 16-tik 21 arte, Santo Tomas eguna hain zuzen, bertso astea antolatu genuen Zabaleta anaiei oroimenez. Astelehenak 16-an bertsolaritzaren Historia izeneko erakusketa zabaldu zen. Beronetan, bertsolaritzaren historia agertzen zen, bertsolaritzaren hastapena ezagutzen denetik gaurdainoko bilakaera erakusten zen bertan. Sei egunez ikus-gai egon zen Xenpelar etxeko erakus aretoan. Juan M. Lekuona Jaunak bertsolaritzari buruzko hitzaldi bikaina ere eman zuen aste berean. Santo Tomas egunean berriz omendu ziren Zabaleta anaia, Juan eta Pello. Egurdian, bazkari batekin eman zitzaion egunari hasiera Gau Txori elkartean. Koxme eta Joxe Lizasok bertso ederrez apaindu zuten bazkalondoa. Arratsaldean berriz Xenpelar etxean, omenduen alabek jaso zituzten okasiorako eman zitzaizkien oroigarriak eta Zapiain Anaia III. bertso paper lehiaketaren sariak banatu ziren. Zabaleta anaiei omenez antolatutako bertso asteari amaiera emateko, bertso saioa osatu zuten Koxme eta Joxe Lizasok Imanol Lazkanorekin batera.

## BESTE ZEREGINAK

Orain arte esandakoarekin ez zaio amaiera ematen bertso eskola honek egin duen lanari. Badugu zerbait garrantzitsua adierazteko, hau da, bertsolaritzaren irakaskuntzan bertso eskola honek duen zeregina. Horretarako bilera batzuetan bultzatu ditugu etorkizunari begira, gure lan zahatza zein izan daitekeen zehaztu asmoz.

Idatzi honen hasieran aipatu dugu, 92-93garren ikastarorako bitan gutxienez banatzea taldea, bat helduekin eta beste bat gazteekin osatu. Eta hau lorpen oso ona izango da, abiapuntu ezin itxaropentsuagoa geroari baikortasun handiz aurre egiteko. Baina hau (betiko perua) ia ia erabat lotuta dago ikastola eta ikastetxe-

tan, hedatu eta emango den bertsolaritza irakaskuntzarekin. Eta guzti hau bideratzen hasteko, bilera garrantzitsu bat egin genuen Orereta Ikastolarekin, Langaitz Ikastolarekin eta Beraungo Ikastetxearekin, Antton Kazabonen ardurapean.

Bilera honetan berrikusketa bat egin zen, bertsolaritzaren irakaspenera norainokoa den irakaskuntzan eta gaztetxoei irakasteak duen garrantzia. Eta guzti horrek gure herriari ekar diezaiokeen onura hizkuntzaren aldetik eta aldi berean kantuaren sentiberatasunak sor dezakeen hizkuntzarekiko atxekimendua ere. Gure aldetik borondate agertu ginen aurrera egin nahi zuten gazte guztiei bertso eskolaren babesa eman eta topagune leku izateko. Esan dezagun bide batez, orain arte bertso eskolan bertsolaritza ikastaroan eskuhartzen duten gaztetxo guztiak Orereta Ikastolakoak direla. Pozik hartuko genituzke beste lekuetatik ere etorriko balitzaizkigu ikastarora.

Bukatzeko, esan aurten ere Santo Tomas egunerako prestaketa lanetan gabiltzala. Honetarako Udaletxearen laguntza izango dugulakoan gaude, bai "Bertsolariya" hirugarren alea publikatzeko, "Zapiain Anaia" IV. bertso paper lehiaketa antolatzeko nola bertso saio bikain batez osatutako eguna prestatzeko ere. Esan bide batez, aurten ere Herriko Enparantzan izango gela festetan "TXOKOLATIA" eskaintzen aurreko urteetan bezala. Gauaz izan daitezkeen mikatzak goizeko 6-etatik 8-ak arte goxatzen.

